ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO ORIENTAZIO ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUEN –LANGABE DONOSTIARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK IZANGO DIRA– KONTRATAZIORAKO PROZEDURA IREKI BITARTEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Kontratuaren xedea orientazio eta aholkularitza zerbitzuak ematea da; hain zuzen ere, enplegagarritasuna hobetzeko orientazio eta aholkularitza zerbitzuak, Donostiako langabeei zuzenduta, betiere haien enplegagarritasuna hobetzen laguntzeko. Enplegua bilatzeko prozesuetan zeharkako gaitasunak eskuratzea lortu nahi da, eta horretarako web mintegiak eta orientazio zerbitzu azkarrak eskainiko dira, lana bilatzearekin lotutako gai eta zalantza zehatzak –enplegua bilatzeko ibilbiderik eskatzen ez dutenak– argitzeko. Horren arabera, kontratazio honen bitartez, Donostiako biztanleria aktibo langabeak bere enplegagarritasuna hobetzea lortu nahi da, hau da, lan bat aurkitzeko eta horri eusteko gai izan dadila, eta lan merkatuan laster sartzeko baliabideak izan ditzala.

Donostia Sustapena SA –aurrerantzean, Sustapena– hiriko garapen ekonomikoaz arduratzen den Donostiako Udaleko Sozietatea da, eta, jasangarritasun eta berrikuntza irizpideei jarraikiz, tokiko sare ekonomikoaren lehiakortasunari eusten eta lehiakortasun hori hobetzen lagunduko duten politikak eta jarduerak sustatzea du helburu, gero eta polarizatuagoa eta globalagoa den merkatu batean, enpresa egitura lehiakor eta jasangarria bultzatuz.

2021. urte honetan, eta Covid-19aren eraginak sortutako krisi globalaren ondorioz, SUSTAPENAk Ekonomia Suspertzeko **PREK** Plan berriaren bitartez, hainbat neurri eta tresna bultzatzen ari da, erantzuna egungo gizartearen eta lanaren testuinguruan inpaktu handiena jasaten ari diren sektore eta kolektiboetara bideratu ahal izateko. Horregatik, berriro ere erronka bat planteatzen da: erantzunak langabeziako testuinguru biziki zail batera egokitzea. Tokiko esparru horretatik, SUSTAPENAren xedea pertsonei eta enpresei laguntzea da, eskura dituen baliabide guztiekin, funtsezkotzat jotzen diren bi alderdiri erantzun ahal izateko: alde batetik, gure enpresen jarduera ekonomikoari ahalik eta proportzio eta hein handienean eusten saiatzea krisialdiko testuinguru honetan; eta, bigarrenik, pertsonei eta enpresei egokitzeko, prestakuntzako eta eraldaketako prozesu batean laguntzea, krisialdi hau gainditu eta indartuta atera daitezen gaitasunei, negozio eta lan ereduei, kontsumo ohitura berrietara egokitzeari, merkatu aukera berriei eta abarri dagokienez.

Egungo langabeziaren testuinguruan, krisialdi honek Donostiako langabezia tasan izan duen eragina nabarmentzen da, gora egin baitu. Hala, 2021eko martxoan % 9,9ra iritsi zen (% 9,2 gizonen kasuan eta % 10.5 emakumeen kasuan), 8.754 pertsona egonik langabezian, eta datuen arabera langabeziaren goranzko joera horrek jarraitu egingo du. Bestalde, datuei erreparatuta ikus daiteke langabezian dauden pertsona gehienak iraupen luzeko langabeak direla (% 47,7), eta inguruabar hori areagotu egiten da pertsona zaharragoen eta emakumeen kasuetan. Donostiako langabeen % 52,5ek 45 urte edo gehiago dituzte eta horietatik % 55,5

emakumeak dira; gainera, emakumeak nagusi dira langabeen kolektibo guztietan, atzerritarren eta 30 urtetik beherako gazteen kasuan izan ezik.

Joera hori goranzkoa da denboran eta, beraz, Donostia Sustapenak beharrezkotzat jotzen du oro har langabezian dauden pertsonei, oro har, laguntzeko behar diren estrategia guztiak indartzea eta, bereziki, lana lortzeko garaian kalteberatasun eta desabantaila handiena duten kolektiboetako pertsonei laguntzeko.

Goian azaldutakoaren arabera, honako jarduketa hauek izango dira kontratazioaren xede:

1- **Banaka lagun egiteko eta tutorizazioko ekintzak.**

2- **Enplegagarritasuna hobetzeko Web mintegiak prestatu eta ematea.**

3- **Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko ekintzak.**

<u>1-Banaka lagun egiteko eta tutorizazioko ekintzak</u>.

Zerbitzu hori ematean, enpresa adjudikaziodunak arreta pertsonalizatua eman beharko du, eta honako jarduera hauek, gutxienez, landu beharko ditu:

- Lana bilatzeko arreta pertsonalizatua, beharrezkoak diren online baliabide eta tresnen bitartez, hala nola, CV txantiloiak, enplegu-bilatzaileak, sare sozialetako profil profesionalak, enplegu programak edo gizarteratzearekin lotutako albiste nabarmenak.
- Online hautaketa prozesuetan trebatzea eta simulazioak egitea.
- Lan eta gizarte gaitasunak garatzea laneratzeko prozesuetan.
- Tokiko eremuan online sortzen diren lan aukerak eta/edo prestakuntzako baliabideak izapidetzen laguntzea eta ebaztea.

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzu hori egiteko eman beharko dituen orduen kalkulua egin da: 350 ordu.

Ordu horiek saio bakoitzean nola banatuko diren erabakitzeko, honako iraupen hauek kontuan izan beharko dira:
Banaka lagun egiteko eta tutorizazioko ekintzak: Banakako saio bakoitzak gutxienez 30 minutu eta gehienez ordu 1 irautea zehaztu da. Gehienez 2 ordu pertsona bakoitzarekin.

Honako egoera hauetakoren batean dauden donostiarrak izango dira zerbitzuaren xede:

- Langabezia egoeran daudenak, partzialki edo erabat.
- Lan egoera prekarioan daudenak, COVID-19aren krisialdiaren ondorioz.
- Hobetzeko moduko lan egoeran daudenak.

Kasu guztietan, arreta berezia jarriko da artatutako pertsona guztien artean % 40, gutxienez, emakumeak izan daitezen lortzeko.

Onuradunak identifikatzeko, enpresa adjudikaziodunak proposamen bat aurkeztu zuen lizitazio fasean. Zerbitzua ematen hastean, proposamen hori Sustapenarekin kontrastatu beharko da, eta lan hori nola egin behin betiko adostu. Lan horren barruan sartuko dira zerbitzuaren xede izango direnak erakartzeko neurriak, erakunde laguntzaileak eta baliabideak.

- Erakartze lanetarako, Sustapenak honela lagunduko du: bere webgunean zerbitzuaren berri emango du, eta bere ohiko kanalak eskainiko ditu zerbitzu horretarako pertsonak identifikatzeko; era berean, liburuxkak ere egingo ditu, zerbitzua ezagutarazteko.

- Erakartze lanetan, enpresa adjudikaziodunak ahal duen guztia egingo du artatutako pertsonen % 40, gutxienez, emakumeak izan daitezen.

- Pertsona egokiak hautatzeko, enpresa adjudikaziodunak erregistratzen diren eskaera guztien harrera kudeatu beharko du eta, horien artean, lehen deskribatutako kolektiboetara (langabezia egoera partzialean edo erabatekoan daudenak, COVID-19aren krisialdiaren ondorioz lan egoera prekarioan daudenak, hobetzeko moduko lan egoeran daudenak) iristea ahalbidetzen dutenak hautatu beharko dira.

Goian deskribatutako bi jarduera horiek beharrezkoak dira **Banaka lagun egiteko eta tutorizazioko** Zerbitzua gauzatu aurretik, eta zerbitzuko ekintzen gauzatzearen barruan sartzen dira; hortaz, berez, ez dute lotutako kosturik eta **Banaka lagun egiteko eta tutorizazioko** zerbitzua gauzatzean hartuko dute zentzua.

Zerbitzua kontratuaren aldi osoan garatuko da, aldizka.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak astean 5 egunez eskaini beharko du zerbitzua, online, telelanaren bitartez, langabeen aukeren arabera malgutu daitekeen ordutegi batean banatuta eta betiere honako ordutegi honen barruan: astelehenetik ostegunera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta ostiraletan 09:00etatik 13:00etara. Gainera, zerbitzua enpresa adjudikaziodunaren instalazioetatik edo Sustapenaren instalazioetatik emateko eskatu ahal izango da, unean uneko beharrizan zehatzen eta egoeraren arabera. Behar adinako aurrerapenarekin jakinaraziko zaio alderdi hori enpresa adjudikaziodunari, zerbitzua behar bezala antola dezan.

Gainera, hilean behin, enpresa adjudikaziodunak hileko jarraipen txosten estatistikoak aurkeztu beharko ditu; txostenean honako datu hauek identifikatu beharko ditu: nor artatu duen, artatutako pertsonen tipologia eta eskatzen dituzten premia nagusiak, bai eta bakoitzarekin emandako denbora ere, gauzatutako zerbitzua kontrolatzearren. Gainera, Sustapenak proposatzen dizkion online bileretan parte hartuko du.

Zerbitzuari zerbitzua ematen dion online agenda teknikoaren kudeaketa enpresa adjudikaziodunak berak bideratuko du.
Horren arabera, eta zerbitzuaren erabiltzaileek zerbitzu eskaerak egiteko kanalak Sustapenaren aplikazioak direnez, kanal horiek behar bezala erabiltzeko prestakuntza eta

informazioa emango dizkio Sustapenak enpresa adjudikaziodunari eta, gainera, kanal horietarako sarbidea ere emango dio.

Sustapenaren kanaletatik jasotako eskaeretan oinarrituta, enpresa adjudikaziodunak interesdunei deitu beharko die, hitzordua emateko. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzuak emateko prestasuna izan beharko du –orduen aldetik eta funtzionamenduaren aldetik–, Donostiako Sustapenak ezartzen dituen erritmo eta eskakizunetara egokituta.

Enpresa adjudikaziodunak Donostiako Sustapenaren aplikazio informatikoan (SIFOM) erregistratu beharko du informazio guztia, eta haren esku jarriko du. Informazio hori aldizka sartu beharko da, zerbitzu zehatza ematen denetik gehienez ere 7 egun balioduneko epean.

2-Enplegagarritasuna hobetzeko Web mintegiak prestatu eta ematea.

Zerbitzua ematean, enpresa adjudikaziodunak web mintegien saioak egin beharko ditu enplegagarritasuna hobetzeko gaiei buruz; horretarako, gune partekatuak edo antzekoak sortu beharko ditu bilerak egiteko plataformetan, lan bila ari direnek taldeka jarduteko eta pertsonak dinamizatzeko prozesuak egiteko aukera izan dezaten lana bilatzeko prozesuetan. Saio horietan, honako gai hauek landuko dira (adibideak baino ez dira):

- Lan merkatua zein egoeratan dagoen jakitea, eta lanbide kualifikazioa hobetzeko eta lan eskaintzak ezagutzen berri izateko moduari buruzko informazioa lortzea.
- Lana bilatzeko edo hobetzeko tresnak ebaluatzea, hautaketa prozesuen simulazioak egitea, test psikoteknikoak, hautaketa elkarrizketak eta abar.
- Lana bilatzeko prozesuan eta trebetasunak eta gaitasunak sustatzeko prozesuan laguntzea.
- Nork bere burua hobeto ezagutzea gaitasunekin, lana bilatzeko tresnekin eta abarrekin lotutako informazioaren bitartez; horretarako, online galdetegiak egin ditzakete haien interesak, balioak, gaitasunak eta enplegagarritasun maila ebaluatzeko.

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzu hori egiteko eman beharko dituen web mintegiak kalkulatu dira: 5 web mintegi.

Web mintegi bakoitzak gutxienez 60 minutu eta gehienez 2 ordu irautea ezarri da, eta gutxienez 8 pertsona izatea hartzaile.

Lizitazio fasean, enpresa adjudikaziodunak onuradunak identifikatzeko proposamen bat aurkeztu zuen, zerbitzuaren xede izango direnak erakartzeko neurriak, erakunde laguntzaileak eta baliabideak zehaztuta. Zerbitzua ematen hastean, Sustapenak proposamena kontrastatuko du, aurkeztutako puntu guztiak batera aztertuko ditu eta zerbitzu hobea emateko aldatu beharreko puntuak zeintzuk diren erabakiko du.

- Erakartze lanetarako, Sustapenak honela lagunduko du: bere webgunean zerbitzuaren berri emango du, eta bere ohiko kanalak eskainiko ditu zerbitzu horretarako pertsonak identifikatzeko.

- Pertsona egokiak hautatzeko, enpresa adjudikaziodunak erregistratzen diren eskaera guztien harrera kudeatu beharko du eta, horien artean, lehen deskribatutako kolektiboetara (langabezia egoera partzialean edo erabatekoan daudenak, COVID-19aren krisialdiaren ondorioz lan egoera prekarioan daudenak, hobetzeko moduko lan egoeran daudenak) iristea ahalbidetzen dutenak hautatu beharko dira.

Goian deskribatutako bi jarduera horiek beharrezkoak dira web mintegi bakoitza gauzatu aurretik eta, horregatik, mintegiak gauzatzearen barruan sartzen dira; hortaz, berez, ez dute lotutako kosturik eta zerbitzua gauzatzean hartuko dute zentzua.

Zerbitzua kontratuaren aldi osoan garatuko da, SUSTAPENArekin adostutako egutegiaren arabera, eta langabeen aukeren arabera malgutu daitekeen ordutegia izango du, betiere honako ordutegi honen barruan: astelehenetik ostegunera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta ostiraletan 09:00etatik 13:00etara. Kasu guztietan, Sustapenak saio bakoitza ematea eta benetan egitea onartuko du, eta, zehazki, gutxienez 8 pertsona lortzen ez badira edo azken orduan 8 horietakoren batek baja hartzen badu.

Enpresa adjudikaziodunak Donostiako Sustapenaren aplikazio informatikoan (SIFOM) erregistratu beharko du informazio guztia, eta haren esku jarriko du. Informazio hori aldizka sartu beharko da, zerbitzu zehatza ematen denetik gehienez ere 7 egun balioduneko epean.

Kontratuaren xede den prestazioaren barruan jarduketa hori egitean, enpresak komunikazio inklusiboa erabili behar du.

3-Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko ekintzak

Jarduera hori egitean, enpresa adjudikaziodunak orientazio zerbitzu azkarra eman beharko die, online eta/edo telefonoz, langabeei, beren enplegagarritasuna hobetzeko.

Hala, unean-unean eta langabe donostiarrek besteren konturako lana bilatzeko prozesuetan COVID-19ak izan dezakeen inpaktuari aurre egiteko ezohiko neurri gisa, enpresa adjudikaziodunak lagun egiteko prozesurik behar ez duten langabeekin lan egin beharko du, lana bilatzeko autonomia izan arren gabeziaren bat badute.

Horrela, bada, **Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko** Zerbitzuan, enpresa adjudikaziodunak informazio zehatza, puntuala eta espezifikoa eman beharko die langabetuei honako gai hauei buruz, besteak beste: curriculum mota ohikoenak, horien adibideak, aurkezpen gutunak, autohautagaitza, motibazio gutuna eta abar. Era berean, bestelako gaiei buruzko informazioa ere eman beharko die, hala nola merkatuko nitxoei eta etorkizuneko

lanbideei buruz, gehien eskatzen diren lan gaitasunei buruz, lana bilatzeko gehien erabiltzen diren app-ei buruz, sare sozialei, agenda pertsonalari, enpleguko webguneei, enplegu zerbitzu publiko batean izena emateari buruz, Sustapenaren webguneari eta zerbitzuei eta abarri buruz.

Guztira 100 orduko dedikazioa zehaztu da zerbitzu horretarako, eta kasu bakoitzean arreta emateko gutxienez 15 minutu eta gehienez 30 minutu.

Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko zerbitzua gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak proposamen bat aurkeztu zion lizitazio fasean SUSTAPENAri, eta adierazitako gaiekin edo interesgarritzat jotzen diren beste gai batzuekin lotutako hainbat txantiloi PDF formatuan aurkeztu zizkion; txantiloi horiek telefonoz edo online eman ahal izango den erantzunaren osagarri izango dira. Kontratuaren xede den prestazioa ematen hastean, proposamen hori bi alderdien artean kontrastatuko dute, eta **Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko** zerbitzuaren puntu guztiak adostuko dituzte.

Erabiltzaileak telefonoz, webgunearen bitartez edo **Banaka lagun egiteko eta tutorizazioko** zerbitzuan parte hartu ondoren izango dute sarbidea zerbitzua, eta Sustapenak enpresa adjudikaziodunera bideratuko ditu Sustapenak zerbitzua emateko eskaintzen dituen kanalen bitartez. Kasu guztietan, **Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko** zerbitzua eskaini beharko du enpresa adjudikaziodunak, erabiltzaileak eskaera egin ondoren.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateko diseinatu dituen galdera-erantzunen sortak erabiliko ditu.

- Erakartze lanetarako, Sustapenak honela lagunduko du: bere webgunean zerbitzuaren berri emango du, eta bere ohiko kanalak eskainiko ditu zerbitzu horretarako pertsonak identifikatzeko.

Jarduketa hori beharrezkoa da **Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko** zerbitzua gauzatu aurretik eta, zerbitzua gauzatzearen barruan sartzen da; hortaz, berez, ez du lotutako kosturik eta zerbitzua gauzatzean hartuko du zentzua.

Langabeei arreta eta informazio azkarra emateko zerbitzua kontratuaren aldi osoan garatuko da, SUSTAPENArekin adostutako egutegiaren arabera, eta langabeen aukeren arabera malgutu daitekeen ordutegia izango du, betiere honako ordutegi honen barruan: astelehenetik ostegunera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta ostiraletan 09:00etatik 13:00etara.
Enpresa adjudikaziodunak Donostiako Sustapenaren aplikazio informatikoan (SIFOM) erregistratu beharko du informazio guztia, eta haren esku jarriko du. Informazio hori aldizka sartu beharko da, zerbitzu zehatza ematen denetik gehienez ere 7 egun balioduneko epean

Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko du zerbitzua, erabiltzaileak eskatutakoaren arabera, eta zerbitzua enpresa adjudikaziodunaren instalazioetatik edo Sustapenak adierazitako instalazioetatik ematen ahal izango dira, unean uneko beharrizan zehatzen arabera. Behar adinako aurrerapenarekin adostuko dira beharrizan horiek, enpresa adjudikaziodunak zerbitzua antola dezan.

Donostian, 2021eko ekainaren 24an,

Digitalki sinatuta norengandik:
MARIA SOLEDAD GARMENDIA
BELOQUI - 15968224Z
Data: 2021.06.25 10:55:59 +02'00'

Marisol Garmendia Beloqui
Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateko presidenteordea